

FRANTZIA. RPRren finantzaketa ezkutuen auzia lehendakaritzako bozen erdian izango da

‘Schuller auziaren’ ikerketak jarraitu ahal izango ditu Vandingenen jujeak

Hauts-de-Seineko HLM sumarioa baliogabetzeko eskaria maiatzaren 15ean trenkatuko da

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Parisko Dei Auzitegiaren instrukzio ganberak Frantziako lehendakaritzarako hauteskunde ondoan, datorren maiatzaren 15ean, du trenkatuko Hauts-de-Seine departamenduko HLM egoitza sozialetako elkargoaren inguruan izandako iruzurren ikerketa baliogabetzea onartuko duen. Baliogabetzeko eskaria egin zuten atzo sumario horretan auzipetuta dauden Patrick Balkany Levallois-Perretero (Hauts-de-Seine) auzapezaren, Pierre Bourgoin Hauts-de-Seineko HLM elkargoko zuzendariordearen eta Jean-Paul Schimpf enpresariaren abokatuek.

Hiru pertsona horiek lotura zuzen eta estua zeukaten Frantziar herenegun itzuli ondoren «eragin trafikoz eta gizarte ondasunak oker baliatzeagatik» auzipetua izan den eta Parisko La Sante espetxean giltzapetua izan den Didier Schullerrekin. Ezen, RPR alderdi kontserbadoreko kontseilari nagusi izandako Schuller Hauts-de-Seineko HLM elkargo zuzendari zelarrik, 1986 eta 1994. urteen bitartean, Patrick Balkany elkargo horretako presidentea zen, Pierre Bourgoin zuzendariordea eta Jean-Paul Schimpf, aldiz, egitura honek eskuragai ezartzen zituen merkatu publikoen legez kanpo ematearen arduradunetarik bat zen.

Didier Schullerren adiskidea zen Schimpf, 1995eko otsailaren 1ean atxilotua izan zen enpresari batek diru mordoa eskutik eskura ematen ziolarik, Hauts-de-Seineko HLM merkatu publiko bat lortzeko segurtasunaren ordain gisa. Eric Halphen ikerketa-magistatuaren aginduetara zen Polizia judizialak egindako arrestatze honen ostean zuen Schullerrek erabaki Frantziatik ihes egitea.

Azken urtoetako ezkutalekua zuen Dominikar Errepublikatik itzultzeko eta Frantziako justiziaren eskuko jartzeko ebatzi ostean, RPR alderdiaren finantzaketa ezkutu iturrietatik batez argibideak emateko prest litzatekeela zehaztu du, behin eta berriro, hedabideetan. Herenegun Pariserat bueltatu bezain sarri, Hauts-de-Seineko HLM auziaz ikerketak daramatzaten Philippe Vandingenen aurrean deklaratu zuen jarraian eta



ORLANDO RAMOS / AP
Didier Schuller Santo Domingon, prentsarekin hizketan.

SCHULLEREN ITZULERA

Eliseoko bilera susmagarriak

Atzo argitaratu zen *Le Canard Enchaîné* astekari satirikoak zioenez, Jacques Chirac Frantziako presidentearen ingurukoak saiatu dira Didier Schuller Dominikar Errepublikatik itzultzearen nola edo hala eragozten. Atzeratze bat lortzeko asmoz, lehen bilera bat egin zen Frantziako lehendakariaren egoitza den Eliseo jauregian, joan den igandean, otsailaren 3an. Honetan parte hartu zuten, *Le Canard Enchaîné*-ren arabera, Thierry Herzog eta Francis Szpiner abokatuek (azken hau zen Schullerren lehenengo abokatuak) bai eta Jean-Claude Antonetti izeneko magistratu batek. Beste bilera bat egin zen bihar-munean bertan, Elisoan baita ere, eta igandeko partaideez gain honetan egon ziren, astekari satirikoak dioenez beti ere, Claude Chirac Frantziako presidentearen alaba eta aholkulari berezia, Jerome Monod beste aholkulari bat eta presidentetzako idazkari nagusi Dominique de Villepin.

honek auzipetu ondoren espetxaratzeko agindua eman zuen.

Helegitea arbuizatzeko eskaria egin du Fiskaltzak

Parisko Dei Auzitegiaren instrukzio ganberak atzo hartutako jarreraren ondorioz, Vandin-

genen epaileak aukerarik izango du Didier Schuller berriro ere galdekatzeko, maiatzaren 15a aurretik. Halaber egin ahal izango du Balkany, Bourgoin, Schimpfekin. Gainerat, justizia kontuez aditutakoen iritzian, instrukzio ganberak nekez

GREGOIRE LAFARGE

Patrick Balkanyren abokatuak

«Sumarioa baliogabetzea eskatu dugu, bidegabekoa izan baita eta azterketa batean sustraitu baita, susmo zantzurik gabe»

OLIVIER SCHNERB

Pierre Bourgoinen abokatuak

«Schuller jaunak egin ditzakeen adierazpenek saltsan ezar lezaketzen pertsona bakarra, bera da hain zuzen ere»

onartuko du Balkany, Bourgoin eta Schimpfen abokatuen helegitea. Honen arbuizatzeko eskaria egin zuen, hain zuzen ere, Fiskaltzak eta Genevieve Bregeon instrukzio ganberako presidentea «nahiko harrigarritzat» jo zuen sumarioaren baliogabetzeko eskaera.

«Baliogabetzea eskatu dugu, auzibide hau bidegabekoa izan baita eta honen euskarri egon den adituen azterketa alde guztietarat joaten utzi baita susmo bakar baten zantzurik ez zelarik», azaldu zuen Patrick Balkanyren abokatu Gregoire Lafargek, atzoko saiotik irtetean. Ikerketa-magistatuak agindutako adituen azterketa 300.000 euro kostatu dela salatu zuen, halaber, Lafargek.

Didier Schullerrek egin ditzakeen deklarazioei buruz, la-sai dela ziurtatu zuen bere alde-tik Pierre Bourgoinen abokatu Olivier Schnerbek. «Schuller jaunak egin ditzakeen adierazpenek saltsan ezar dezaketzen pertsona bakarra bera da, hain zuzen ere» adituzat eman zuen Schnerbek. «Ez dut inondik inolara ere pentsatzen merkatu publikoak makurtuta, dirua legez kanpo lortzeko sistema bat bazenik», gaineratu zuen.

Jean-Paul Schimpfen defentsaz arduratzen den Thierry Herzog abokatuak, aldiz, haren bezeroari 1995 eta 1997. urteetan ikerketa-magistatuak egin zizkion itaunketen erregulartasuna salatu zuen, zehazki zer leporatzen zioten jakin gabe egin zizkiola hauek argudiatuta.

MAZEDONIA

Gobernuak eskatu dio NATOri martxotik harat luzatzeko egonaldia

Agentziak | **SKOPJE**

Mazedoniako koalizio gobernuak erabaki du NATO Aliantza Atlantikoari eskatzea bere tropak egon daitezen Balkanetako errepublika honetan datorren martxoaren 26tik harat. Ezen, NATOk Mazedonian daraman bakea bermatzeko misioa egun hartan da amaitzekoa, Skopjeko gobernuak eta Aliantza Atlantikoak iaz hitzartu zuten akordioaren arabera.

Skopjeko agintariek NATOko tropen egonaldia luzatzeko eskaria egingo diote George Robertson erakunde politiko-militarraren idazkari nagusiari, honek Mazedoniara bihar egingo duen bisitan. Robertson joango da, haatik, Mazedonia NATO sartzeko aukeraz hitz egiteko Skopjeko agintariekin.

Mendebaldeko aliantza militarrek eskaera hau ontzat jo behar lukeela diote adituek. Gaur egun NATOko 1.000 soldadu inguru zabaldua daude Mazedonian, alemanen agintaritzapean den TFF Task Force Fox izeneko indarraren baitan. Indar honek segida hartu zion NATOk burutu zuen *Premiazko Uzta* deitutako operazioari. Honen helburua izan zen, Mazedonia ipar-mendebaldeko lurraldeetan kokatua zen albaniar gerrillaren armak biltzea.

Albaniarrek Poliziari uko

2001eko irailean amaitu egin zen operazio honek ez dio, haatik, erabateko lasaitzerik ekarri Mazedoniako herritar eslaviar gehiengoaren eta albaniar gutxiengoaren artean piztutako gatazkari. Honen erakusle izan da berriki, Mazedonia iparraldeko 17 herritako bizilagunek ez dituztelarik Skopjeko gobernuaren agindupeko Polizia indarrak hedatzen utzi euren eskualdeetan.

Orain arte, Skopjeko Gobernuaren kontrolpean izan beharko zuten 80 herrietatik 50etan Mazedoniako Poliziak ez du sartzerik lortu.